

KOSTALDEKO IBILBIDEA SENDERO LITORAL

Euskaditik igarotzean, E9 "Europako Kostaldeko ibilbidea" mendiko ibilbide luze (GR) gisa seinaleztatuta dago. Ibilbide hauekin bat egiten du: GR 121* "Talaia ibilbidea" Gipuzkoan, eta GR 123* "Bizkaiko Bira" Bizkaian.

A su paso por Euskadi, el E9 "Sendero Litoral Europeo" se encuentra señalado como sendero de gran recorrido. Coincide con el GR® 121 "Sendero Talaia" en Gipuzkoa y con el GR® 123 "Vuelta a Bizkaia" en el tramo vizcaino.



GOMENDIOAK

Saia zaitez etapak norbaitekin egiten, eta esan nora zoazen eta noiz etorriko zaren.

Planifikatu ondo etapak, eta diseinatu zure aukeren arabera.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Eraman beti behar den beste hornigai (ura, janaria, botikina, mugikorra ondo kargatuta, dirua, dokumentazioa...).

Errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak.

RECOMENDACIONES

Procura realizar las etapas en compañía y deja aviso de dónde vas y cuándo vuelves.

Planifica bien las etapas y adapталas a tus posibilidades.

Lleva calzado y ropa adecuados teniendo en cuenta la predicción del tiempo.

Lleva siempre equipo suficiente (agua, alimentos, botiquín, móvil bien cargado, dinero, documentación...).

Respeta el entorno que visitas y al resto de senderistas.


EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

Sukarrieta herri txikitik abiatuta, Urdaibaiko estuarioaren ezker aldean Txatxarramendi uharte txikiak babesten duena, Bizkaiko kostaldeko marinel-izaera handieneko herrietako batzuk zeharkatzen ditu etapa honek, hala nola Mundaka eta Bermeo, eta seguruenik argazki gehien egiten zaizkion parajea: Gaztelugatxe ko Doniene Monumentu Naturala.

Partiendo de la localidad de Sukarrieta, protegida en la margen izquierda del estuario de Urdaibai por la pequeña isla de Txatxarramendi, esta etapa recorre algunos de los pueblos con mayor carácter marítimo de la costa de Bizkaia, tales como Mundaka y Bermeo, para coronar con el que probablemente sea su paraje más fotografiado: el Monumento Natural de San Juan de Gaztelugatxe.

17,3 km 686 m 5h 45' MIDE 1-2-2-3



MIDE

- 1** Ingurunean arriskuak egon daitezke. El medio no está exento de riesgos.
- 2** Bidexkak edo jarraibidea adierazten duten seinaleak. Sendas o señalización que indica la continuidad.
- 3** Zaldibideko ibilaldia. Marcha por caminos de herradura.
- 3** 3 eta 6 ordu arteko ibilaldi jarraia. De 3 a 6 horas de marcha efectiva.

SEINALEZTAPENA SEÑALIZACIÓN GR® 123

- Ibilbidearen jarraipena. Continuidad del sendero.
- Norabide aldaketa. Cambio de dirección.
- Norabide okerra. Dirección equivocada.

Bidezatia / Tramo SUKARRIETA ► BURGOA

km 0..... **SUKARRIETA.** Sukarrietaren parean, Urdaibaiko artadi zaharrenetako bat gorde du Txatxarramendi uharteak. XIX. mendearen amaieran hotel bat izan zen bertan, eta turismoa erakarri zuen ingurura. Bertako basoa zaintzen ere lagundu zuen, gaur egungo parke botanikoaren jatorria dena. Kanpin bat zeharkatuta, GR® markek Mundakara eramango gaituzte. Han, arrantza-portu txikiaren inguruan biltzen dira etxeak, eta itsas tradizioa eta surfariak ematen dioten izaera kosmopolita uzatzen dira giroan, surfariak mundu osotik etortzen baitira ezker olatu ospetsuaren gainean ibiltzeko. BI-2235 errepidearen ondoko pasealekutik Bermeo koloretzura iritsiko gara.

km 6..... **BERMEO.** Bermeo arrantza-hiri bizia da, eta kultura-ondare erakargarria du. Beraz, merezi du bertan geldialdi bat egitea, indarbertitzeko. Arane auzotik irtengo gara herrigunetik, eta, pixkanaka-pixkanaka, baseri artean sartuko gara, Burgoa mendira igotzeko prest.

km 0..... **SUKARRIETA.** Frente a Sukarrieta, la isla de Txatxarramendi conserva uno de los encinares más antiguos de Urdaibai. A finales del siglo XIX acogió un hotel que atrajo turismo a la zona y favoreció el cuidado de su bosque, origen del actual parque botánico. Atravesando un camping, las marcas de GR® nos conducen hasta Mundaka, donde las casas se agrupan en torno al pequeño puerto pesquero, en un ambiente que combina tradición marinera con el carácter cosmopolita que aportan surfistas que vienen de todo el mundo para cabalgar su famosa ola izquierda. Por el paseo pegado a la carretera BI-2235 alcanzamos la colorida Bermeo.

km 6..... **BERMEO.** Bermeo es una vibrante villa pesquera con un atractivo patrimonio cultural que bien merece una parada para reponer fuerzas. Salimos del núcleo urbano por el barrio Arane y, poco a poco, nos adentramos entre caseríos preparándonos para la ascensión al monte Burgoa.

KOSTALDEKO IBILBIDEA SENDERO LITORAL

EUSKAL KOSTALDEA COSTA VASCA

9

SUKARRIETA ► BAKIO

Km 17,3

686 m

5h 45'



EUSKADI BASQUE COUNTRY





EZ GERATU EZAGUTU GABE! ¡NO TE LO PIERDAS!

Ez galdu Bermeoko portu zaharretik paseatzeko aukera, bizitzaz eta izaeraz betetako txakoa sortzen baitute koloretako fatxadek eta portuko jarduerak.

No dejes de pasear por el puerto viejo de Bermeo, donde las fachadas de colores y la actividad portuaria crean un rincón lleno de vida y carácter.



Bakion, txakolinaren tradizioari bizirik eutsi zaio Kantauri itsasora begira dauden mahastien artean. Ardo zuri, fresko eta apur bat garratz horrek paisaiaren izaera eta tokiko kultura islatzen ditu, eta udalerraren nortasun gastronomikoaren funtsezko parte da. Bere historia eta elaborazioa ezagutzeko, eta dastaketa batez gozatzeko (aurrez erreserbatuta), Txakolin Museoa-Txakolingunea bisita dezakezu.

En Bakio, la tradición del txakoli se mantiene viva entre viñedos que se asoman al Cantábrico. Este vino blanco, fresco y ligeramente ácido, refleja el carácter del paisaje y la cultura local, siendo parte esencial de la identidad gastronómica del municipio. Para conocer su historia y elaboración, y disfrutar de una cata (bajo reserva), puedes visitar el Museo del Txakoli-Txakolingunea.

Bidezatia / Tramo BURGOA ► BAKIO

km 10,7-- **BURGOA** Sollube menditik (685 m), Matxitxako lurmutur ospetsuaren bidez, Kantauri itsasoraino jaisten den mendilerroan gaude. Bere itsasargia Gerra Zibileko gertakari heroikoenetako baten lekuko izan zen: Matxitxakoko itsas gudua. Hartan, Euskadiko Guduontzidiak, gerraontzi bihurtutako arrantzarako bouek osatua, frankisten alde borrokatzen ari zen Canarias gurutzatze ospetsuari egin zion aurre 1937ko martxoan. Ibilbideari berriro helduz, San Pelaio basilizak etapa honetako ikono handia gertu dagoela iragartzen du: Gaztelugatxeko Doniene.

km 14 -- **GAZTELUGATXE**. Gaztelugatxeko sarreran gaude, jateke baten ondoan, Urizarreta auzoan. Uhartre baten gainean dago basiliza ospetsu hori, eta kostaldeari lotua dago harrizko zubi baten eta 241 eskailera-mailaren bidez. Erromesaldi-leku historikoa da eta euskal kostaldeko erakargarri turistiko handienetako bat. Antzinako tenplua IX. mendean eraiki zenetik, historian zehar suteak eta erasoak izan ditu. Basiliza eta bere ingurua Kultura-paisaia eta Natura-monumentu gisa babestua daude. Eguna amaitzeko, lasai-lasai Bakiora jaitea besterik ez zaigu geratzen; Bakio tradizio turistikoa du, eta Bizkaiko txakolinari lotuta egon da betidanik.

km 17,3-- **BAKIO**.



km 10,7-- **BURGOA**. Nos encontramos en el cordal montañoso que, desde el monte Sollube (685 m), desciende hasta el mar Cantábrico por medio del famoso Cabo de Matxitxako. Su faro fue testigo de uno de los episodios más heroicos de la Guerra Civil: la batalla de Matxitxako, en la que la Marina de Guerra Auxiliar de Euskadi, formada por bous de pesca reconvertidos en buques de guerra, se enfrentó al poderoso crucero franquista Canarias, en marzo de 1937. Retomando la marcha, la ermita de San Pelaio anuncia la cercanía del gran icono de esta etapa: San Juan de Gaztelugatxe.

km 14 -- **GAZTELUGATXE**. Nos encontramos en el acceso a Gaztelugatxe, junto a un restaurante, en el barrio de Urizarreta. La famosa ermita situada sobre una isla y unida a la costa por un puente de piedra y 241 escalones, es un histórico lugar de peregrinación y uno de los mayores atractivos turísticos de la costa vasca. Desde que el primitivo templo se erigió probablemente en el siglo IX, a lo largo de la historia ha sufrido incendios y ataques. La ermita y su entorno están protegidos como Paisaje Cultural y como Monumento Natural. Para culminar la jornada solo resta bajar cómodamente hasta Bakio, un municipio de tradición turística, históricamente vinculado al txakoli vizcaíno.

km 17,3 -- **BAKIO**.



TELEFONO INTERESGARRIAK TELÉFONOS DE INTERÉS

Turismo bulegoak Oficinas de Turismo	94 625 58 92
Gernika-Lumo	646 347 553
Gernika-Lumo (whatsapp)	94 617 72 01
Mundaka	688 759 747
Bermeo	94 617 91 54
Bakio	94 619 33 95

Larrialdiak
Emergencias



turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK A TENER EN CUENTA

- Gaztelugatxe bisitatzeko, kontuan izan begiratokirako eta basilizarako sarrera araututa dagoela goi-denboraldian -asteburuetan, Aste Santuan eta udan-. Sarrera doakoa da eta alde aurretik erreserbatu daiteke Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean.

- Para visitar Gaztelugatxe, ten en cuenta que, en temporada alta — fines de semana, Semana Santa y verano —, el acceso al mirador y a la ermita está regulado. La entrada es gratuita y se puede reservar con antelación en la web de la Diputación Foral de Bizkaia.

